

Zangoza / 2022

KULTUR AGENDA

apirila



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA PALACIO SABOROSA
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Kultura-zerbitzuaren arreta ordutegia: Astelehenetan 09:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Gonbidapenak hartzea: Pertsona eta jarduera bakoitzeko gehienez 4 sarrera jaso ahal izanen dira. Sarrerak ez dira zenbakidunak eta ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapenak **apirilaren 5etik aurrera** jaso ahal izanen dira Kultura-etxean asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870251 telefonora deituz edo posta elektronikoz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken, Instagramen eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu.

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: Apirilaren 5etik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik eguneko 24 orduetan www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Argibide Telefonoa:** 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzeppen egunetan: Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero) saioa hasi baino ordubete lehenago.

Argibide Telefonoa: 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua laukoa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko.

Ikuskikunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara gazte txartela erakutsiz.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA


Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa edo deitu 948 870 251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman. Datuak babesteko legea www.sanguesa.es webgunean kontsulta ditzakezu.



- 1 Os Erakusketa. "La diosa Mari y sus criaturas / Jainkosa Mari eta bere izakiak" (apirilaren 3ra bitarte) 4. orr
- 2 La Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena 1122-2022
Hitzaldia "Eros eta Tanatos Nafarroako gortean" 7. orr
- 3** Ig
- 4 Al
- 5 As
- 6 Az
- 7 Og Erakusketa. "Lucio. La utopía en viñetas"
(apirilaren 24ra bitarte) 4. orr
- 8 Os
- 9 La Antzerki eta musika. "Lucio, una reflexión escénica" 5. orr
- 10** Ig
- 11 Al Kontzertua. Coral Nora 9. orr
- 12 As Hitzaldia. "Mintza gaitezen antsietateaz"
Musika Eskolako ikasleen kontzertua 9. orr
10. orr
- 13 Az
- 14** Og
- 15** Os
- 16 La Zangoza Hiria XXX.Sari Nagusia 10. orr
- 17** Ig
- 18** Al
- 19 As Liburuaren Eguna. Ipuin kontalaria eta magia. "Magikus"
Osasuna K.A.aren Aste Santuko 15. Campusa
(apirilaren 22ra bitarte) 8. orr
10. orr
- 20 Az Liburuaren Eguneko Tailerra 8. orr
- 21 Og Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena 1122-2022
Hitzaldia "Erdi Aroko Zangozan bizitzea" 7. orr
- 22 Os
- 23 La
- 24** Ig
- 25 Al
- 26 As Hitzaldia. "Mintza gaitezen depresioaz" 9. orr
- 27 Az
- 28 Og Erakusketa "Con Arte se sale Adelante"
(maiatzaren 15era bitarte) 5. orr
- 29 Os
- 30 La Tailerra. "Baratzearen kudeaketa
ekologikoa autokontsumorako"
Dantza. "Yerma bizia"
Rural Kutxa BTT Kopa. Eskolen Proba 10. orr
6. orr
10. orr

Azaleko irudia: "Lucio. La utopía en viñetas".

Erakusketak



“LA DIOSA MARI Y SUS CRIATURAS / JAINKOSA MARI ETA BERE IZAKIAK”

Tea en la Azotea

APIRILAREN 3RA BITARTE

Oraingoan, “Tea en la azotea” deritzonak euskal mitologiari buruzko erakusketa batekin harrituko gaitu. Bere oihalezko pertsonaiak, Mari, Basajaun, Tartalo, laminak... gure kultura-etxean biziko dira. Gure herriko esaera zahar batek dioen bezala, “Izanak izena du”.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.



“LUCIO. LA UTOPIA EN VIÑETAS”

Mikel Santos “Belatz”

APIRILAREN 7TIK 24RA

2018an, Mikel Santos «Belatz» ilustratzaile eta komikigileak Txalaparta argitaletxearekin argitaratu zuen orain arteko bere lanik handinahiena: Lucioaren Altxorra, Lucio Urtubia lagunari buruzko eleberri grafikoa. Lana, Cascanteko anarkistaren biografia grafikoa, urteetako elkarriketen eta elkarlanaren emaitza izan zen. Erakusketan behin betiko orrialdeen erreproduzioak ikusi ahal izanen dira, baita jatorrizko xaflak, aurretiazko zirriborroak, apunteak, oharak, gidoiak eta argazkiak ere, artista nafarrak komiki hau sortzeko prozesuan erabili dituenak. Komikiak baditu dagoeneko frantsesezko, danierazko, euskarazko, katalanezko eta galizierazko edizioak.



LUCIO

Laguntzaileak: Sendaberri Programa, Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea, Nafarroako Komikiaren Azoka eta Nafarroako Gobernua.

Erakusketak



“CON ARTE SE SALE ADELANTE”

José Javier Abadía

APIRILAREN 28TIK MAIATZAREN 15ERA

“Une txarretan egindako nire lanen erakusketak ez erortzen eta aurrera egiten lagundu dit. Egun anitzetan margotzen hasten nintzen eta ez zitzaidan ezertxo ere ateratzen, baina ahaleginak eta tinkotasunak beren emaitzak ematen zituzten. Une artistiko onean nago orain, eta, horregatik, hagitx ongi datorkit nire akriliko eta urmargoen lanak zuei erakustea. Espero dut gozatuko duzuela”.

José Javier Abadía

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Bisita-ordutegia: asteartetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara. Igandeetan eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Arte Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

ANTZERKI ETA MUSIKA

Sendaberri, nuevos paisajes escénicos-Paisaia eszeniko berriak

“Lucio, una reflexión escénica”

YERBABUENA PRODUCCIONES

LARUNBATEAN, APIRILAK 9

Gidoia eta zuzendaritza: Marco Bellizzi, Pilar Chozas, Martina Cabanas.

Dramaturgia: Martina Cabanas.

The New Jazz Collective: Juan de Diego, tronpeta; Marco Bellizzi, tronboia; Fredi Peláez, hammond organoa; Hilario Rodeiro, bateria.

“Lucio, una reflexión escénica”, diziplinararteko ikuskizun bat da, zuzeneko jazz (The New Jazz Collective-ren eskutik), ikus-entzunezko lengoia: komikia, dokumentala, eta Lucio Urtubiaren beraren hitza uztartzen dituena. Duela gutxi hil den igeltsero eta anarkista nafar historikoa eta kulturaren munduaren defendatzaile sutua.



Arte Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



Hausnarketa artistiko moduko formatu berri bat bere irudiari merezitako omenaldia egiteko, berarekin bizitzeko zortea izan zutenen maitasunetik eta errespetutik. Gizarteari eta egungo balioei buruzko hausnarketa.

Ikuskizuna amaitzean, interesa duen orok **solasaldi** bat izanen du Marco Bellizzirekin eta The New Jazz Collectiverekin.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 20:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Aldez aurreko salmenta: 6 €. **Txartel-leihatilan:** 8 €

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

DNA2022

Danza Contemporánea de Navarra

Nafarroako Dantza Garaikidea

DANZTA. DNA2022 Jaialdia

“Yerma bizia”

ZUK DANCE

LARUNBATEAN, APIRILAK 30

Zuzendaritza: Itsaso A. Cano.

Koreografia eta antzezpena: Andrea Irurzun eta Iria Lumberras.

Nafarroako Zuk Dance konpainiak istorioak kontatzen dituen dantzaren aldeko apustua indartu du muntaia honekin. Dramaturgiak baliatzen dira pertsonaien emozioak lantzeko, eta emaitza antzerkiaren, dantzaren eta zinemaren arteko ikuskizuna da. Kasu honetan tragedia lorkiar bat aukeratu dute: Yerma, amatasunaren handiko emakumea, ama izateko ezintasunaren aurrean, bere senarra hiltzen duena amatasunaren gizarte-mandatutik libratzeko. Proposamenak koreografia, ikus-entzunezko sorkuntza eta gorputz-mugimendua uztartzen ditu, ia zinematografikoa den eszenaratze batekin. Istorioaren giroetan murgildutako esperientzia honek protagonistaren sentsazio berberak biziki sentitzera eramanen ditu ikusleak.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 65 minutu.

Ordua: 20:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 6 €.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.

Ikuskizuna amaitzean, interesa duen oro **solasaldi** batez gozatuko da konpainiarekin.



Argazkiak: MIGUELPG.

Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena 1122-2022



HITZALDIA

“Eros eta Tanatos Nafarroako gorlean”

Hizlaria: Nieves Concostrina.

LARUNBATEAN, APIRILAK 2

Nafarroako Zuria erreginak, bere seme Karlos Vianako printzeak eta honen anaiak, Fernando I.a Nafarroakoak eta II. Aragoiok, badute zerbait komunean, erregealdi, liskar eta politikakerietatik haratago. Eta hori erreginaren hezurren inguruko txutxu-mutxua da, printzearen momia eta Fernandoren sexu-irrika.

Nieves Concostrina (Madril) 1982an hasi zen kazetaritzan desagertutako Diario 16 egunkarian. Antena 3, Radio 5 eta RNE irratieta lan egin eta gero eta hainbat argitalpenetan kolaboratzaile izan ondoren, gaur egun Cadena Ser irrati katearen “La ventana” irratsaioan kolaboratzen du eta gainera, “Cualquier tiempo pasado fue anterior” irratsaioa dauka. Hainbatetan saritua, liburu hauen egilea da: Menudas historias de la Historia”, “Muertes ilustradas de la humanidad”, “Se armó la de San Quintín”, “Menudas Quijostorias”, “Pretérito imperfecto”, “Antonia”, “La historia en apuros” y “Cualquier tiempo pasado fue anterior”.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Ordua: 19:00.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar.



“HISTORIAREKIN HITZORDUA” HITZALDI ZIKLOA

“Erdi Aroko Zangozan bizitzea”

OSTEGUNEAN, APIRILAK 21

Hizlaria: Íñigo Mugueta.

Íñigo Mugueta Geografia eta Historia Saileko irakasle kontratatu doktorea da. Lehen Hezkuntzako Maisu Graduan, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako masterrean eta Historia, Espazioa eta Ondarea Ikasketetako masterrean irakasten du. Gizarte Zientzien Didaktikako eta Erdi Aroko Historiako jakintza-arloetako irakaskuntza-lanak uztartzen ditu 2008tik.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Hitzaldi Aretoa.

Ordua: 19:00.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira **apirilaren 5etik**.

Liburuaren Eguna Ospatzea



IPUIN KONTALARIA ETA MAGIA (Euskaraz)

“Magikus”

SERGIO DE ANDRÉS

ASTEARTEAN, APIRILAK 19

Mago kapela honetan nahastuko ditugu ipuin hautsak, magia apur bat eta txiste zipriztinak. Horri guztiari, Sergio de Andres gehituko diogu. Ezustean, aztikeriaz, ilusioz beteko gara eta barre egingo dugu, algaraka. A! eta untxia aurkitzen baduzu, Sergiori itzuli... Gizajoak galdu egin du eta ezin du aurkitu...

Ikusleak: 7 urte baino gutxiagokoei helduek lagundu behar diete.

Doako sarrera edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira apirilaren 5etik.

Ordua: 18:30.

Iraupena: 60 minutu.

Lekua: Santoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.



LIBURUAREN EGUNeko TAILERRA

Sortu zure karrusel liburu:

“Alizia Herrialde Miresgarrian”

MILA GARCÍA

ASTEAZKENEAN, APIRILAK 20

Tailer honen protagonista “Alizia Herrialde Miresgarrian” ipuina da. Mila Garcia artista nafarrak Lewis Carrollen ipuin ospetsua parte-hartzaileei, kontatu eta gero, karrusel moduko liburu zabalgarri bat sortzen lagunduko die. Bertan, kontakizun honetako eszenaren bat marraztu ahal izanen dute, edo Aliziarekin lotutako bere abentura asmatu. Pertsonaia ebakigarriak ere asmatuko dituzte, haiek in jolastu ahal izateko antzerkitxo gisa.

Ikusleak: 5 eta 11 urte bitarteko haurrak. 7 urte baino gutxiagokoei helduek lagundu behar diete.

Iraupena: 90 minutu.

Ordua: 18:00etatik 19:30era.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Izen-emateak: Apirilaren 5etik aurrera Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.

Hitzaldiak

“Mintza gaitezen osasun mentalaz”



“MINTZA GAITEZEN ANTSIETATEAZ”

ASTEARTEAN, APIRILAK 12

Sintomak ezagutzea, erabiltzen ikastea.

“MINTZA GAITEZEN DEPRESIOAZ”

ASTEARTEAN, APIRILAK 26

Tristura eta depresioa bereizten jakitea, norberarengan eta beste pertsona batengan identifikatzea, noiz kontsultatu profesionalari.

Laura Etayo Sarasak, Salamancako Unibertsitatean psikologian graduatuak emanen ditu hitzaldiak. Psikologia sanitario orokorrean masterra Nafarroako Unibertsitatean. Argibide Fundazioko kidea.

Ordua: 19:00. **Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

Doako sarrera edukiera bete arte. Aldez aurretin hartu behar dira gonbidapenak **apirilaren 5etik**.

Lehiaketak



**AGER VASCONUM EUSKARAZKO
V. 2.0 LITERATURA-LEHIAKETA**

Antolatzaileak: Tafalla, Erriberri, Lizarra, Zangoza eta Lodosako Udalek eta Irantzuko Mankomunitateak antolaturiko lehiaketa.

Aurkezteko epea: Maiatzaren 13a bitarte.

12 eta 30 urte bitarteko gazteei **zuzenduta**.

Oinarriak: www.sanguesa.es www.sanguescultura.es

Argibideak: Tafallako Udalaren Euskara Zerbitzua.



**ALBRETEKO ENRIQUE ZANGOTZARRA
XXVII. IKERKUNTZA- LEHIAKETA**

Lanak Zangoza eta zangozarrei buruzkoak izan behar dute. Lan-egitasmoen aurkezpena Zangozako Udaletxean egingen da **2022ko ekainaren 30a** (barne) baino lehenago. Aurkezturiko lanak Zangotzarra Aldizkarian argitara eman litezke.

Oinarriak: www.zangotzarra.es.

Antolatzailea: Albreteko Enrique II. Kultura-taldea.

Zangozako talde kulturalen jarduerak



NORA ABESBATZAREN ASTE SANTUKO KONTZERTUA

ASTELEHENAN, APIRILAK 11

Ordua: 19:30. **Lekua:** Santiago apostolua eliza.

Beste jarduera batzuk

Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



Musika Eskolako ikasleen kontzertua

ASTEARTEAN, APIRILA 12

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Kirolak



ZANGOZA HIRIA XXX.SARI NAGUSIA

APIRILAK 16, LARUNBATA

OSASUNA K.A.REN ASTE SANTUKO 15. CAMPUSA

APIRILAREN 19TIK 22RA

RURAL KUTXA BTT KOPA. ESKOLEN PROBA

APIRILAK 30, LARUNBATA



TAILERRA

**Baratzearen kudeaketa ekologikoa
autokontsumorako**

LARUNBATAN, APIRILAK 30

Andreu Vila Nekazaritza ingeniariak emana. Nekazaritza Ekologikoko masterra eta Arreu Aholkularitza Kooperatibako Agroekologiako aholkulari eta prestatzailea. Jardunaldi teorikoa eta praktikoa.

09:00etatik 11:00etara: Laborantza ekologikoaren ikuspegi orokorra: ongarritzea, lursailaren diseinua, landare-materiala hautatzea eta ureztatzea.

11:00etatik 13:00etara: Kanpo-bisita. Lurzatiaren diagnostia, laborearen eta landare-osasunaren kudeaketari dagokionez.

15:00etatik 17:00etara: Nekazaritza ekologikoan izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko estrategiak eta kanpo-bisitaren ondorioak.

Lekua: Herritarrak Artatzeko Zerbitzua.

Izen-emateak: Apirilak 26, asteartea, azken eguna (14:00ak arte) Udal bulegoetan (Karrika Nagusia 31, behea), 948 870 005 telefonoan edo honako helbide elektronikoa: asuntosociales@sanguesa.es.

Laguntzaileak: Ardaska Ingurumen Elkarte eta Nafarroako Gobernua, Agenda 2030.

